
Gasteizko HAPOaren
Aurrerakina. Foro
Hiritarrak.

Avance del PGOU de
Vitoria-Gasteiz. Foros
Ciudadanos

Umeen parte-hartzea
Participación de la
infancia

Nire auzoaren eta gure hiriaren etorkizuna

2020ko martxoaren 4a

.....

Helburua

Haurren beharrak Aurrerapen Dokumentuan integratzea eta hiriaz duten ikuspegiari garrantzia ematea, beren auzoari eta eguneroko hiri inguruneari buruzko hausnarketa kolektiboa sustatuz.

Saioaren antolamendua

Parte-hartzaileak: 34 haurrek parte-hartu dute.

Lan esparrua aurkeztea: Zer da hirigintza eta zer da HAPOa?

Saioari ekiteko, hiria osatzen duten elementuen eta haien garapena planifikatzeko hirigintza tresnen aurkezpen laburra egiten da.

Taldearen aurkezpena

Jarraian, parte hartzaile bakoitzak bere izena idazten du paper batean eta, ondoren, bere auzoaren gainean jartzen du paper hori, lurrian marraztutako Gasteizko mapa handi batean. Nor garen eta zein auzotatik gatozen komentatzen dugu.

Ariketa nagusia

Taldeka lan egiten hasten gara, parte hartzaileak bizi diren auzoaren arabera elkartuz.

Talde bakoitzak koaderno bat jasotzen du material lagungarri gisa. Koaderno horrek honako hauei buruz hausnartzeko gida gisa balio die: eguneroko bizitzan erabiltzen dituzten espazioak, horiek norekin erabiltzen dituzten, hiriko lekurik gogokoenak eta abar. Ondoren, auzoak hobetzeko proposamenak egiten dituzte.

Ariketa horretan jasotako informazioa eta ideiak atal honetan daude: [Dokumentu honen Edukiak](#).

Esandakoak bateratzea

Amaitu aurretik, talde bakoitzak bere auzorako egindako hausnarketak eta hobetzeko proposamenak azaltzen dizkie gainerako parte hartzaileei, eta guztion artean komentatzen ditugu.

Parte hartzaileei eskerrak ematen dizkiegu eta agurtzen gara.



Edukiak

Jarraian, haurrek ariketa nagusian emandako ideiak eta iritziak jasotzen dira, honako multzo hauetan elkartuta:

- [Alde Zaharra](#)
- [Koroatzea](#)
- [San Martin](#)
- [Txagorritxu](#)
- [Zabalzana](#)
- [Zaramaga](#)

Alde Zaharra

Egunero zein lekutara joaten diren

Aldabe eta Landatxo gizarte etxeetara, Santa María ikastetxera, El Boulevard merkatal gunera; Lidl, Mercadona edo Carrefour bezalako supermerkatuetara.

Mugitzeko moduak

Nagusiki oinez. Baita ere autoz, bizikletaz eta autobusez.

Topaketa guneak

Jolasteko, Landatxon, parkean, Txokoan; lagunekin egoteko, Salburuan eta bunker sekretu batean.

Lekurik gogokoenak

El Boulevard, Mendizorrotza, Beraka Txokoa, Iparraldeko Parkea, Zaramaga, Pilar Txokoa, Aldabe gizarte etxea, Itsasontzi pirata, Salburua eta Artium.

Hobetzeko proposamenak

- Parkeak nerabeentzat ere, jolas gehienak haur txikientzat baitira.
- Zuhaitz gehiago, lasaitasuna ematen dutelako eta Gasteiz Green Capital delako.
- Etxeak berritzea, oso zaharrak baitira.
- Kaleen garbitasuna zaintzea. Lurra txikiez eta beste gauzez beteta dago, graffitiek utzikeria eta zikinkeria sentsazioa ematen dute.
- Santa Maria eliza behingoz berritu dezatela.
- Santo Domingo kalearen garbitasuna zaintzea eta eraikinen egoera hobetzea.
- Eskailera elektrikoaren eta igogailuaren mantentze lanak areagotzea, maiz hondatzen baitira.
- Etxebizitzen prezioa arautzea eta etxebizitzak birgaitzea. Beharrezkoa da etxe gehiago egotea eta merkeagoak izatea, gaur egun zaila baita etxea aurkitzea.
- Kaleetan zuhaitz gehiago jartzea.
- Graffitiak ezabatzea, bandalismo sentsazioa ematen dutelako eta gehiegi daudelako (Aiztogile kalean eta Santo Domingo kalean, esaterako).

Koroatzea

Egunero zein lekutara joaten diren

Iparraldeko Parkera, Alde Zaharrea dagoen eta Goian deritzon zentrora, auzoko parkera, Gasteizko Santa María ikastetxera.

Mugitzeko moduak

Oinez eta, batzuetan, bizikletaz.

Topaketa guneak

Jolasteko, parkean: lagunekin futboleant, ezkutaketan, saskibaloian eta abarrean aritzeko.

Lekurik gogokoenak

El Boulevard, Salburua, Iparraldeko Parkea, ikastetxea, futboleant aritzeko lekuak, Mercadona, Eroski eta El Corte Inglés supermerkatuak, auzoko parkeak.

Hobetzeko proposamenak

- Parkea hobetzea, handitu egin behar delako eta hobeto hornituta egon behar delako: tirolina, errusiar mendia, trenbide bat, zaborrontziak, iturri gehiago, Iparraldeko Parkeko futbol ateak konpontzea eta hautxoentzako parke gehiago egitea.

- Parke gehiago jartzea, ez baitute kutsatzen.
- Etxeak birgaitzea eta igogailu handiagoak jartzea. Etxeak handiagoak izan beharko lirateke, jolasteko leku gehiagorekin eta igogailu handiagoekin.

San Martin

Egunero zein lekutara joaten diren

Ikastetxera, futbol zelaira, parkera, dorreetara.

Mugitzeko moduak

Bizikletaz, oinez eta autobusez.

Topaketa guneak

Jolasteko, Dorreen parkean; familiarekin pintxopotean; lagunekin ikastetxean eta litxarrerriak erosten.

Lekurik gogokoenak

Hiriaren erdigunea.

Hobetzeko proposamenak

- Parke gehiago.
- Gaez argi gehiago egotea.
- Segurtasun handiagoa skate parkean. Aldapa oso handiak daude, eta praktika handirik ez baduzu, erori egiten zara eta hortzak hausten dituzu.

Txagorritxu

Egunero zein lekutara joaten diren

Ikastetxera, tabernetara, parkeetara, dendetara, gizarte etxera, liburutegira, futbol zelaira.

Mugitzeko moduak

Oinez, sarritan bakarrik eta anai-arrebekin. Baita ere autoz edo autobusez, eta bizikletaz, patinetez edo skatez.

Topaketa guneak

Jolasteko, parkean eta ikastetxean; familiarekin parkean eta etxean; lagunekin ikastetxean.

Lekurik gogokoenak

Ikastetxea; etxea; Irati taberna, eskola ondoan dagoelako; parkeak, han denbora pasatzen duzulako eta jolasten zarelako; litxarrera denda; Ospitalea, gaixo nagoenean sendatzen nautelako eta botiken errezeta ematen didatelako;

farmazia, botikak ematen dizkigutelako.

Hobetzeko proposamenak

- Auzoan museo bat jartzea, Artium bezalakoa, ikasteko eta gauza gehiago jakiteko.
- Parketik gertu komun publikoak jartzea, ez daudelako eta beharrezkoak direlako.
- Azokak.
- Parkeko semaforoak eta zebra bideak berrikustea, oso denbora gutxi irauten dutelako berdez oinezkoentzat, eta beti itxaron behar delako. Zaila da hiribideak alde batetik bestera gurutzatzea, errepidearen alde bat gurutzatzen duzun bitartean gorrian jartzen delako, eta berriz ere irlatxoan itxaron behar duzulako.
- Bidegorri gehiago egitea, segurtasun eta ordena handiagoa egon daitezen.
- Ikastetxe bat jartzea Txagorritxuren erdigunean.
- Dibertimendua hobetzea, 'City jump' erako parke dibertigarriagoak jarritz.
- Landa eremu gehiagotara joateko aukera izatea.

Zabalgana

Egunero zein lekutara joaten diren

Erdigunera, dendetara, igerilekura, gizarte etxera.

Mugitzeko moduak

Bizikletaz, autobusez eta autoz.

Topaketa guneak

Jolasteko, saskibaloiko saskietan; familiarekin etxe ondoko parkean, gizarte etxean eta basoan, paseatzeko; lagunekin parkean, jolasteko.

Hobetzeko proposamenak

- Handientzako kulunkak jartzea, txikientzat bakarrik baitaude eta haur handiagoentzat ere egon beharko lirakeelako.
- Bereizitako bidegorri gehiago, errepidetik ez doazenak.

Zaramaga

Egunero zein lekutara joaten diren

Aldabe eta Iparralde gizarte etxeetara, ikastetxera, parkeetara, El Boulevard merkatal gunera.

Mugitzeko moduak

Oinez, beti egin izan den bezala.

Topaketa guneak

Jolasteko, Aldaben; familiarekin El Boulevarden eta parkean; lagunekin Aldaben;

irakasleekin ikastetxean; 'Aktibatu'rekin leku dibertigarri askotara joaten gara politikariekkin.

Hobetzeko proposamenak

- Graffitiak ezabatzea, etxebizitzan paretetan daudenak batez ere.
- Gogaitzen gaituzten bizilagun asko daude.
- Ongi legoke, oro har, denda gehiago egotea (adibidez, Mercadona).
- Kaleen garbitasuna zaintzea, txakur kaka asko dago.
- Mozkorrek eta jonkiek hartzen duten gehiegizko alkohola kontrolatzea.